# ZUIA BIDEAN KOMUNIKA

4/25
002

## “ MENSAJE AL DESCUBRIDOR/A DEL ARCA DE LA MEMORIA ”

Querido/a lector/a del futuro,

Si tienes esta carta en tus manos, significa que el tiempo, la curiosidad o quizá un accidente de excavación te han llevado hasta aquí. No sabemos quién eres ni en qué mundo vives, pero desde este lejano año 2025, queremos decirte que acabas de encontrar el testimonio de lo que un día fuimos y de lo que, con suerte, todavía sois.

Esperamos que este encuentro no sea porque alguien ha decidido que este lugar es perfecto para la base de un aerogenerador. De ser así... por favor, tómate un momento para mirar a tu alrededor. ¿Todavía hay árboles? ¿Sigue sonando el canto de los pájaros? ¿Aún existe ese silencio vibrante que solo se encuentra en los lugares donde la vida sigue su propio ritmo? Si la respuesta es sí, por favor, protégelo. Y si la respuesta es no, ojalá este descubrimiento te ayude a recordar por qué era importante.



Hoy esto es un parque llamado Villa Jesusa, un trozo de tierra donde las generaciones se han encontrado, donde los vecinos han paseado, conversado, discutido y soñado con el futuro, tal vez sin imaginar que un día este mensaje llegaría hasta ti. Ojalá siga siendo un lugar para la vida.

Y hablando de lo que queremos que siga existiendo... ¿qué tal le va al euskera? En nuestro tiempo, este idioma es memoria, identidad, una forma de nombrar el mundo con raíces tan profundas como las montañas que nos rodean. No sabemos si en tu época es la lengua de todos, de unos pocos, o si se ha convertido en un código secreto que solo aparece en manuscritos antiguos. Si todavía lo hablas, sonríe. Has sido parte de su historia.

Más allá de palabras y paisajes, lo más importante que queremos decirte es que, en este rincón del mundo, en este momento del tiempo, creemos en la comunidad. Creemos en la gente que se junta para defender lo que ama. Creemos que la tierra no es solo suelo, sino hogar. Creemos que el futuro no se puede construir si olvidamos quiénes somos. Valora lo que acabas de encontrar, porque dentro de esta arca se encuentra la certeza de que las cosas que de verdad importan solo se conservan si se cuidan en comunidad.

Puede que el mundo hoy sea muy distinto al nuestro. Quizá las amenazas han cambiado de forma, quizá las luchas sean otras, pero seguro que sigue siendo verdad que nadie protege su lugar en solitario. La tierra, la cultura, la memoria, la justicia... todo se sostiene con manos unidas. Y si hoy Zuia sigue siendo Zuia (o como quiera que lo llaméis ahora), si sigue habiendo un nosotros, entonces el esfuerzo de quienes escribimos esto no fue en vano.



# Y AHORA ESCUCHA BIEN, PERSONA DEL FUTURO.

Si este lugar sigue en pie y aún existe una comunidad que lo habita y lo cuida, si todavía hay quienes se reúnen para hablar del presente y soñar con el mañana, entonces has heredado algo más grande que un arca.

Así que, por favor, recuerda que no estás solo/a. Tu comunidad es lo único que hace que este lugar sea TU lugar. Defiéndelo. Cuídalo. Porque lo que hoy amas, lo que sientes tuyo, no sobrevivirá si no luchas por ello. La memoria se apaga si no se cuenta. La comunidad se rompe si no se cuida. La tierra se pierde si no se defiende. Y aunque no nos conocemos, te pedimos que no dejes que lo que nos unió a nosotros se pierda en tu tiempo.

Si algún día te toca a ti escribir un mensaje para quienes vendrán después, no dudes en hacerlo. Que cuando alguien, dentro de cien, doscientos o quinientos años, desentierre un nuevo mensaje, pueda leer en él lo mismo que tú has leído hoy:

Aquí, en este rincón del mundo, hubo gente que creyó en algo más grande que ellos mismos. Y aquí, en este rincón del mundo, sigue habiéndolos.

Porque mientras haya alguien dispuesto a recordar y alguien dispuesto a escuchar, el tiempo no nos separa: NOS UNE.

## LAS GENTES DE ZUIA DEL AÑO 2025



# ZUIA BIDEAN KOMUNIKA

4/25
002

## “ MEZUA MEMORIAREN KUTXAREN AURKITZAILEARI ”

Etorkizuneko irakurle maitea,



Gutun hau zure eskuetan baduzu, horrek esan nahi du denborak, jakin-minak edo indusketa-istripu batek honaino eraman zaituela. Ez dakigu nor zaren eta zein mundutan bizi zaren, baina 2025 urte honetatik, esan nahi dizugu zure aurkikuntza ez dela lurperatutako objektu soil bat. Mezu bat da. Garaien arteko zubi bat. Egun batean izan ginenaren eta, espero dugu, oraindik-orain zaretenarena.

Aurrez-aurre duzun hau bilaketa kontziente baten emaitza dela suposatuko dugu, eta ez, demagun, norbaitek leku hau aerosorgailu baten oinarrirako perfektua dela erabaki duenaren zantzua. Lehena bada, biziki eskertzen dizugu. Bigarrena bada... mesedez, gelditu pixka bat. Begiratu ingurura:

Zuhaitzak daude oraindik? Txorien kantua entzuten al da oraindik goizetan? Oraindik ba al dago isiltasun dardarti hori? Bizitzak bere erritmoari jarraitzen dion lekuetan bakarrik aurkitzen dena? Erantzuna baiezkoa bada, mesedez, babestu eta erantzuna ezezkoa bada, ea gutun honek eta kutxaren edukiak laguntzen dizuten gogoratzen zergatik zen garrantzitsua.

Hemen, idazten dizugun leku honek, toki honek, Villa Jesusa du izena. Parke bat da. Leku berezi bat non belaunaldiek topo egin duten, non haurren barreak zuhaitzen sustraien artean hazi diren, bizilagunek paseatu duten, hitz egin duten, eztabaidatu duten eta etorkizunarekin amets egin duten. Agian, imajinatu gabe egunen batean mezu hau zuregana iritsiko zela. Ez dakigu zer den orain, baina bizitzarako leku bat izaten jarraitzea espero dugu.

Eta existitzen jarraitzea nahi dugunaz hitz eginda: zer moduz dago euskararen egoera? Gure garai honetan, hizkuntza bat baino gehiago da: memoria da, identitatea, mundu ikuskera bat, mendiak bezain sustrai sakonak dituen mundua izendatzeko modu bat. Ez dakigu zure garaian guztion hizkuntza den, gutxi batzuena, edo kode sekretua, eskuizkribu batzuetan baino agertzen ez dena. Oraindik hitz egiten baduzu, egin irribarre. Haren parte izan zara eta zara.

Baina hitzetatik eta paisaietatik harago, hau da esan nahi dizugun gauzarik garrantzitsuena: munduko txoko honetan, historiaren une honetan, komunitatean sinesten dugu. Uste duena, maite duena, defendatzeko elkartzen den jendearengan sinesten dugu. Uste dugu lurra ez dela lurzorua bakarrik, etxea ere badela. Uste dugu etorkizuna ezin dela eraiki nor garen ahazten badugu. Eta aurkitu berri duzuna balioesteko eskatzen badizugu, ez da bakarrik beste baten objektu bat delako; baizik eta kutxa horren barruan ziurtasuna dagoelako benetan inporta duten gauzak elkarrekin zainduz gero, mantentzen direla, eta hori ez litzateke galdu behar.

Baliteke, hau irakurtzen ari zaren mundua oso bestelakoa izatea. Agian mehatxuak formaz aldatu dira. Agian borrokak bestelakoak dira, baina ziur gaude oraindik ere egia bat badela, inork ez duela bere lurra, bere lekua, bakarrik babesten. Lurra, kultura, oroimena, justizia... dena esku elkartuekin lotzen da. Eta gaur Zuia, Zuia izaten jarraitzen badu (edo orain deitzen diozuen bezala), gu bat baldin badago, orduan hau idatzi genuenok eta egin genituen esfortzuak, ez ziren alferrik izan.




## TA ORAIN, ENTZUN ONDO, ETORKIZUNEKO PERTSONA HORI.

Leku honek zutik jarraitzen badu, oraindik bertan bizi eta zaintzen duen komunitateren bat badago, oraindik ere zuhaitzen azpian orainaz hitz egiteko eta etorriko denarekin amets egiteko biltzen direnak baldin badaude, orduan zerbait handiagoa heredatu duzu eta ez da kutxa hau aurkitze hutsa.

Beraz, mesedez, gogora ezazu: ez zaude bakarrik. Komunitatea da lekuak leku huts bat bakarrik baino gehiago izatea lortzen duena. Defenda ezazu. Zaindu ezazu. Maite duzun guztia, zure sentitzen duzun guztia, gaur egun sentitzen duzun guztia ez da bizirik aterako horren alde borrokatzen ez bazara. Memoria itzali egiten da kontatzen ez bada. Komunitateak bere burua zaintzen ez badu, hautsi egiten da. Lurra galdu egiten da defendatzen ez bada. Eta elkar ezagutzen ez dugun arren, nahiz eta denborak banatzen gaituen, eskatzen dizugu ez uzteko gu elkartu gaituen honi.

Eta egunen batean zuri egokitzen bazaizu ondoren etorriko direnentzako mezu bat idaztea, ez izan zalantzarik. Norbaitek, hemendik ehun, berrehun edo bostehun urtera, mezu berri bat aurkitzen badu, gaur zuk irakurri duzun gauza bera irakur dezala bertan:

Hemen, munduko txoko honetan, bizi zen jendea haiek baino zerbait handiagoan sinetsi zuena. Eta hemen, munduko txoko honetan, oraindik ere badira horrelakoak. Norbait gogoratzeko prest eta norbait entzuteko prest dagoen bitartean, denborak ez gaituelako bereizten: BATU EGITEN GAITU.

## ZUIAKO 2025. URTEKO JENDEA

